



EUSKADIN Q SUKARRA

ZAINTZEKO ETA

KONTROLATZEKO

PLANA

2020ko urtarrila

Dokumentu hau Q Sukarraren Talde Teknikoak egin eta adostu du. Egiteko horretan buru izan da Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, parte hartu dute Araba, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Abeltzaintza Zerbitzuek eta aholkularitza teknikoa eman dute Neiker (Nekazaritza Ikerketarako Euskal Institutua) eta Elika (Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Institutua) entitate publikoek.

1.- HITZAURREA

Q sukarra zelula barneko *Coxiella burnetii* bakterio gram-negatiboak eragindako zoonosia da; beroarekiko eta lehorketarekiko oso erresistentea da, eta haizeak infekzio-fokutik zenbait kilometrotara eraman dezake.

Q sukarra endemikoa da Europako zenbait eremutan, eta Osasun Publikoko arazo handi bihurtu da.

Q sukarra etxeko animalietan kontrolatzea funtsezkoa da gaixotasunak gizakiengan duen eragina murrizteko; horregatik, garrantzitsua da zaintza- eta kontrol-planak ezartzea, batez ere ustiategietako detekzioan eta profilaxi- eta higiene-neurrietan oinarrituta.

2.- XEDEA

Zaintza eta kontrol-programa honen xedea da etxeko hausnarkarrietan Q sukarraren prebalentzia murrizteko bide ematen duten ekintzak ezartzea, eta, beraz, euskal biztanlerian agerraldiak izateko arriskua murriztea.

Horretarako, zenbait ekimen jarriko dira abian, Euskal Autonomia Erkidegoko ardi- eta ahuntz-azietan gaixotasunaren jarraipena egiteko, abeltzaintzako ustiategietan arriskua gutxitzeko neurriak ezartzeko eta, azkenik, animaliekin kontaktuan dauden langileak prestatzeko eta sentsibilizatzeko.

3.- APLIKAZIO-EREMUA

Kontrol-programa hau EAEn erroldatutako ardi- eta ahuntz-azietan ustiategiei aplikatuko zaie.

4.- ANIMALIAK ZAINTEKO PROGRAMA

Ustiategietako zaintza-sistamarako, batetik, abortuen zaintza pasiboa ezartzen da, eta, bestetik, zaintza aktiboa, tankeko esnearen eta serumaren analisisien bidez:

Zaintza pasiboa: Abortuak deklaritzen direnean, automatikoki ikertuko da *Coxiella burnetii*ren presentzia.

- Q Sukarraren proba analitikoak EAEko abortuen Zaintza Sistemari sartuko dira.

Zaintza aktiboa: Susmagarriak ez diren ustiategietan *C. burnetii* detektatzera bideratuta.

- Serum-laginen analisiak egingo dira ustiategi guztietan, eta tankeko esnearen laginenak (tankeak dituzten ustiategietan).

· Serologia:

- 30 animaliatik beherako artaldeetan: Guztiei hartu laginak.

- 30 animaliatik gorako artaldeak: 30 lagin.

(Lagin-kopuru hori kalkulatu da esperotako gutxieneko % 10eko prebalentzia antzemateko, % 95eko konfiantza-mailarekin)

- Tankeko esnearen analisia, *C. burnetii* bidezko infekzioa bilatzeko esne-ustiategietan. Gomendatzen da eme helduak eta arkazteak jezten elkartzen diren unean hartzea lagina.

5.- ARTALDEEN KALIFIKAZIOA:

Artaldeetan ikusitako sintomatologiaren eta laborategiko analisisetan lortutako emaitzen arabera, artaldeak kategoria hauetan sailkatuko dira:

Artalde positiboa (artalde kalifikatugabea): infekzioa artaldean aktibo badago eta baldintza hauetatik gutxienez bi betetzen badira:

- Bada sintomatologiarik: badira abortu-kasu batzuk, Q sukarrak eragindako abortu direla diagnostikoz baieztatuta.
- Bakterioaren DNA detektatzen da plazentetan edota umetoki-fluidoetan edota tankeko esnean.
- Serologia bidez lagindu diren animalien artean (animalia helduak eta lehen erditzekoak azterketan sartuta), antigorputzak detektatu dira animalien % 20an edo hortik gora .

Artalde zalantzakoa (artalde kalifikatugabea): infekzioa latente egon daitekeenean, gutxienez baldintza hauetako bat betez:

- Ez dago sintomatologiarik: Ez dago *C. burnetii* eragindako aborturik (plazentak edota uteroko exudatuak negatiboak dira), baina antigorputzak detektatu dira eme multiparen edota arkazteen % 5 baino gehiagotan.
- Antigorputzak detektatu dira tankeko esnean, baina ez da *C. burnetii*ren eskreziorik aurkitu esnetan.

Artalde negatiboa (artalde kalifikatua): infekziorik aurkitzen ez denean eta aurreko taldeetako premisarik betetzen ez denean.

Sei artalde-kategoria ezarri dira, aurreko sailkapenaren arabera eta artaldearen txertaketa-egoeraren arabera

P1	Artalde positibo txertatu gabeak
P2	Artalde positiboak, arkazte guztiak behintzat txertatuta dituztenak.
D1	Artalde zalantzakoa, txertatu gabeak
D2	Artalde zalantzakoa, arkazte guztiak behintzat txertatuta dituztenak.
N1	Artalde negatibo txertatu gabeak.
N2	Artalde negatiboak, guztiz txertatuak

6.- KONTROL-PLANA: JARDUKETA-PROTOKOLOA

6.1.- Jarduketak, zainketaren emaitzen arabera

Artaldearen sailkapenaren arabera, kontrol-neurri batzuk edo besteak lehenetsiko dira, ondoren zehaztutako bidetik:

a) Artalde negatiboa

Garrantzitsua da negatibotasun-estatusari eustea *C. burnetii*ekin harremanetan egon ez diren ustiategietan. Horretarako, artaldearen osasun-egoera zaintzea eta animalia berrien negatibotasuna ziurtatzea gomendatzen da, bai negatibotzat kalifikatutako artaldeetatik ekarrita, bai mugimenduari lotutako azterketa serologikoak eginda. Animaliak herri-larreetara joanez gero, txertoa jartzea gomendatzen da, kutsatzeko arriskua murrizte aldera.

Ustiategiaren kalifikazio negatiboari eusteko, agintaritza eskudunak aldizkako kontrolak egingo ditu, egoera epidemiologikoaren arabera:

Kontrolak serumean:

- 30 animaliatik beherako artaldeetan: Guztiei hartu laginak.
- 30 animaliatik gorako artaldeak: 30 lagin
(Lagin-kopuru hori kalkulatu da esperotako gutxieneko % 10eko prebalentzia antzemateko, % 95eko konfiantza-mailarekin)

Nolanahi ere, eta ahal den guztietan, laginak arkazteen % 50 jasoko du gutxienez.

Esnearen tankea duen artaldea: kontrol serologikoaren ordeztan, tankeko esnearen laginak hartu ahal izango dira.

Kanpoko pertsonen bisitak onartzen dituzten abeltzaintzako ustiategiek (abereen kudeaketarekin zuzeneko harremanik ez duten pertsonak) neurri hauek hartu beharko dituzte:

- Ustiategiak jasotzen dituen bisiten erregistroa eduki, data, taldeko pertsona-kopurua, taldearen identifikazioa eta harekin harremanetan jartzeko datua adierazita.
- Bisiten kargura dauden ustiategiko langileei biosegurtasunari eta higiene-praktikei buruzko prestakuntza eman.
- Biosegurtasun-neurriak zorrotz bete (ibilgailuen sarbidea murriztu, bisitak oinetako babesekin egin...).
- Ustiategiko higiene-planak zorrotz garatu.
- Erditzerik ez erakutsi.

b) Artalde zalantzazkoa

Artalde zalantzazkoetan, honela jokatu da:

- Hurrengo osasun-kanpaina berriz egingo da kontrola.
Abortuen zaintza areagotuko da.
- Biosegurtasun-neurriak indartuko dira

Txertatu gabeko artaldeetan (D1):

- i. Abelazkuntza-mugimenduak kontrolatuko dira (sarrerak eta irteerak).
- ii. Herri-larreetarako sarbidea mugatuko da
- iii. Murriztu egingo dira abeltzaintzako ustiategitik kanpoko langileen bisitak (ganaduaren kudeaketarekin lotura zuzenik ez duten pertsonak) arrisku-aldian (erditze-garaia hasten denetik, amaitu eta bi hilabete igaro arte).

c) Artalde positiboa

Kontuan izan behar da antibiotiko bidezko tratamenduak ez duela ez ezabatzen ez murrizten bakterioaren eskrezioa; beraz, ez zaie aplikatu behar *C. burnetii* bakterioaz kutsatutako animaliei. Hortaz, artalde positiboetan honela jokatu da:

Q sukarrak eragindako infekzioa aktibo duten artaldean derrigorrezko txertaketa, jarraibide hauen arabera:

- i. Hazkuntzarako abereen txertaketa eta birtxertaketa.
- ii. Urteko oroitzapen-dosia, estaldura baino lehen.

Abereen mugimenduak mugatzea. Sarrerarako, N2 artaldeetatik datozen animaliak izan beharko dute. Txertoa jaso duten animaliak bakarrik saldu ahal izango dira bizitzeko.

Infekzio aktiboa duten artaldeein herri-larreetarako sarbidea murriztea kanpaina honetan. Hurrengo urteetan, P2 artaldeek herri-larreetara sartu ahal izango dute.

Abeltzaintzako ustiategitik kanpoko langileen bisitak murriztea arrisku-aldian (erditze-garaia hasten denetik, amaitu eta bi hilabete igaro arte). Kanpoko langileetat hartzen dira ganaduaren kudeaketarekin lotura zuzenik ez duten guztiak.

Biosegurtasuneko neurriak ezartzea

Agintari eskudunek Osasun Publikoko Lurralde Zuzendariordeztari jakinaraziko diote positiboa

6.2.- EAEko ustiategiei lotutako giza agerraldiak jakinaraztean egiteko jarduketak

Q sukarra gizakietan agertzen denean, Osasun Publikoak inkesta epidemiologiko bat egingo die pazienteei, eta laginak hartuko dizkie. Epidemiologia Zerbitzuak agerraldiaren berri emango dio lurralde historikoko Abeltzaintza Zerbitzuari, eta, ondoren, honela jokatu da:

- i. Susmoa ustiategi jakin bati lotzen bazaio, jarduketa hauek egingo dira ikertu beharreko ustiategian:

Erditze-aldiarekin bat badator, erditu edo abortatu berri diren animalien plazenten edo baginako fluidoan laginak hartuko dira, eta lehen erditzeko animalien (15-20) eta 2 erditze edo gehiago izan dituzten animalien (15-20) serum-laginak ere bai. Hori *guztia* *C. burnetii* bakterioaren eskrezio-fase aktiboan dauden animaliak dituzten ustiategiak detektatzeko, eta, hala badagokio, anduia isolatzeko eta molekula mota zehazteko, hartara agerraldiaren jatorria egiaztatu ahal izateko (eragindako pertsonetan aurkitutako genotipoarekin konparatzea).

Agerraldiaren ikerketa ez bada erditze-aldian egiten, orduan tankeko esnea hartuko da (halakorik baldin badago), ingurumen-laginak (azaleretako hautsen laginak) eta lehen erditzeko animalien (15-20) eta 2 erditze edo gehiagoko animalien serumen laginak (15-20) ere bai.

- ii. Osasun Publikoko inkesta epidemiologikoak ustiategi susmagarriak adierazten ez badu:

Pazienteek inkesta epidemiologikoetan emandako datuen arabera –hau da, sintomak agertu aurreko 2-3 astean egon diren lekuetatik non eduki ahal izan duten ganaduekin kontaktu–, Abeltzaintza Zerbitzuek foku posibleen ikerketa bat egingo dute, eta 1. puntuan azaldutako laginak hartuko dituzte ustiategi susmagarrietan.

Inplikaturako ospitaleetako mikrobiologia-zerbitzuei jakinaraziko zaie agerraldian inplikaturako *C. burnetii*ren anduia isolatu eta detektatu behar dela, metodo molekularren bidez, eta haren molekula mota zehaztu. Horretarako, Osasun Publikoko zerbitzuak Carlos III.a Osasun Institutuarekin (CN Mikrobiologia) harremanetan jarriko dira, laginak bidaltzeko, hark beharrezko metodologia baitu.

7.- PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-PLANA

7.1.- Albaitarien prestakuntza

Albaitari klinikoaren prestakuntza ezinbestekoa da Q sukarraren alderdi epidemiologiko eta kontroleko alderdi guztiak ondo ezagutzeko, bai eta autonomia-erkidegoen zaintza- eta kontrol-programaren berri izateko ere; hartara, kaltetutako abeltzaintza-esplotazioei aholkuak eman behar dizkieten unean, irizpide homogeenak izango dituzte, eta gomendioak eman ahal izango dituzte hartu beharreko neurriei eta instalazioetan egin daitezkeen hobekuntzei buruz.

Teknikariei zuzendutako etengabeko prestakuntza-programak egingo dira.

7.2.- Ustiategietako langileen prestakuntza

Garrantzitsua da ustiategietako langileek jakitea Osasun Publikoan zer-nolako ondorioak dituen haien artaldea zoonosi horrek jota egoteak. Informazioa eguneratuko da ganaduaren gaixotasunaren alderdi garrantzitsuenei buruz (triptikoa erantsita) eta ustiategian ezarri behar diren biosegurtasuneko eta kontroleko neurriei buruz.